

PROIEKTU ARTISTIKOETARAKO DEIALDIA, 2019 URTEA

FUNTSA

Gasteizko Udaleko Kultura, Hezkuntza eta Kirol Sailak hainbat jarduerar-ildo garatzen ditu sorkuntza artistiko garaikidea sustatu, bultzatu eta ezagutzera emateko asmoz.

Testuinguru horretan egiten du Montehermoso kulturuneak honako deialdi hau sorkuntza artistikoaren garapena eta zabalkundea bultzatzeko asmoz.

Banakako lanak nahiz talde-lanak aurkezteko aukera eman nahi zaie artista lokalei, arte eta kultura garaikidea sustatzen duten ekintzen bitartez, eta horiek herritarrengana hurbilduz.

OINARRIAK

Lehena: Deialdiaren xedea

Kultura, Hezkuntza eta Kirol Sailak egiten duen deialdi honek sorkuntza artistikoaren alorreko gehienez HIRU arte sorkuntzako proiektu eta ikus-entzunezko proiektu BAT hautatzea du xede, 2019ko irailetik 2020ko ekainara bitartean Montehermoso kulturunean aurkezteko.

Bigarrena: Eskatzaileen betebeharrak

Jarduteko erabateko gaitasuna duten eta sektore publikoarekin kontratatzeke debekurik ez duten artistek, erakundeek nahiz elkarteek aurkeztu ahal izango dituzte proiektuak.

Proiektuek argitaratu gabeak izan beharko dute, eta Montehermoso kulturunean aurkeztu beharko dira, aurrerago adierazten den epean.

Hirugarrena: Laguntza emateko prozedura

Garatuko den proiektua hautatzeko, aurkeztutako proposamenak alderatu egingo dira, balioespen-irizpide hauek aintzat hartuta:

IRIZPIDEAK	PUNTUAK
Proiektuaren interesa eta kalitatea	10

IRIZPIDEAK	PUNTUAK
Proiektuaren koherentzia eta bideragarritasuna, aurkeztutako dosierraren eta dokumentazio osagarriaren argitara: helburuak, gauzatzeko denbora eta baliabideak.	5
Proiektua aurkezten duen egilearen edo taldearen prestakuntza eta ibilbide profesionala.	5
PUNTUAK, GUZTIRA	20

Eskatzaileak elkarrizketatu ahal izango ditu hautaketa-batzordeak, edo informazio osagarria eskatu, aurkeztutako proposamenak hobeto ebaluatzeko.

Proiektuetako batek ere ez badu eman daitezkeen puntuen % 50 lortzen, deialdia esleitu gabe utzi ahal izango du hautaketa-batzordeak —zati bat edo osorik—.

Laugarrena: Proiektuak hautatzeko batzordea

Honako hauek osatuko dute hautaketa-batzordea:

Batzordeburua: Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saileko zinegotzia edo hark ordeztuko izendatzen duena.

Batzordekideak: Deialdiak hartzen dituen alorretako bi aditu, kulturuneak hautatuak.

Idazkaria: Montehermoso kulturuneko lantaldeko kide bat, ahotsa bai baina botorik gabe.

Ezingo da batzorde horren erabakiaren kontra jo. Eskatzaile guztiei jakinaraziko zaizkie ebazpenak, idatziz.

Bosgarrena: Zenbatekoa eta ordainketa

Proiektu bakoitzeko gehieneko diru-kopurua 6.000 eurokoa izango da. Ordainsariak, proiektua ekoiztetik eta Montehermoso kulturunean erakusgai jarri eta zabalkundea ematetik sortzen diren gastuak oro hartuko ditu bere baitan zuzkidura horrek.

Montehermoso kulturuneko azpiegiturak, tresneria teknikoa, aholkularitza eta giza baliabideak gehituko zaizkie partida horiei. Kulturuneari atxikita ez dauden giza-baliabideak eta tresneria teknikoa ekonomikoki balioetsiko dira, eta diru-hornidura gisa kontabilizatuko laguntzaren barruan.

Adierazitako diru-kopuruak bere baitan hartuko ditu zergak, egin behar izanez gero egingo den PFEZaren atxikipena gorabehera. Honela ordainduko da diru-kopuru hori:

- % 90 kontratua izenpetzen denean,
- gainerako % 10a 2020ko otsailaren 1ean.

Deialdi honetako aurrekontua gehienez ere 24.000,00 eurokoa da, horietako 21.600,00 euro 2019ko ekitaldiko 23-1205-3332-2-2622 partidaren kontura izango dira, eta gainerako 2.400,00 euro 2018ko ekitaldiko partida beraren kontura izango da.

Batean nahiz bestean, faktura aurkeztu beharko da. Pertsona edo erakunde eskatzaileak ezingo du izan inolako zorrik Udalarekin. Ofizioz eskatuko du horren gaineko ziurtagiria Kultura Sailak. Zorrik izanez gero, hala jakinaraziko zaio pertsona edo erakunde eskatzaileari, eta ez da faktura ordainduko harik eta egoera konpondu arte.

Seigarrena: Aurkeztu beharreko agiriak

Agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Eskabidea, behar bezala beteta.
- Eskatzaileak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordaindu dituela eta sektore publikoarekin kontratatzeke debekuaren mende ez dagoela jasotzen duen erantzukizunpeko aitortpena.
- Proiektuaren titularraren nortasun-agiriaren edo agiri baliokidearen fotokopia.
- Proiektuaren titular den pertsona edo entitatearen ibilbidea edo curriculuma.
- Beste batzuekin batera aurkeztuz gero, entitatearen nahiz haren ordezkariaren ibilbide edo curriculumaz eta datuez gain, harekin batera parte hartzen duten agenteen gaineko informazio osoa ere aurkeztu beharko da.
- Proiektuaren dosierra, hauexek biltzen dituena:
 - Proiektuaren izenburua eta garapena
 - Behar teknikoak.
 - Gauzatze egutegia
 - Gutxi gorabeherako aurrekontu banakatua, finantziario propioa izan lezaketen kontzeptuak zehazten direlarik.

Eskabideari ez bazaizkio eransten atal honetan zehaztu diren agiriak, hamar eguneko epea emango zaio eskatzaileari egoera hori konpon dezan. Hala egin ezean, bertan behera utzitzat joko da eskabidea.

Zazpigarrena: Aurkezteko epea eta lekua.

2019ko apirilaren 1era artekoa izango da proiektuak aurkezteko epea.

Posta elektronikoz aurkeztu beharko dira proiektuak, helbide honetara igorritik: administracion@montehermoso.net

Posta elektronikoz egiaztatuko da eskabidea eta agiriak jaso direla. Hortaz, egiaztapena jasotzen ez bada, ondorioztatu beharko da agiriak ez direla heldu.

Zortzigarrena: Deialdia ebazteko epea

Deialdi honetako 7. puntuan zehaztu diren irizpideak aintzat harturik aztertu eta ebaluatuko ditu aurkezten diren eskabideak eta agiriak hautaketa-batzordeak.

Eskabideak balioetsi ondoren, emaitzaren berri emango du batzordeak, hilabeteko epearen barruan —eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunetik—. Idatziz jakinaraziko da ebazpena.

Bederatzigarrena: Jarraipen-batzordea

Jarraipen-batzorde bat eratuko da, eta hura arduratuko da proiektua behar bezala garatzen den ebaluatzeaz.

Batzorde horrek behar adina bilera eskatu ahal izango ditu, kontratuan jasotzen diren zehaztapen eta betebeharrak oro behar bezala betetzen direla bermatzeko.

Halaber, batzorde horri dagokio kontratua gauzatzeko orduan planteatzen diren egokitzapenak eta aldaketa-proposamenak baimentzea, eta proiektuaren kanpo-komunikazioa gainbegiratzea.

Baldin eta uste bada lana ez dela deialdian aurreikusitako moduan eta epeetan gauzatzen ari, besterik gabe laguntza kendu ahal izango da, batzordeak txostena egin ondoren.

Hamargarrena: Onuradunaren betebeharrak

Deialdi honetan hautatzen den proiektuaren titular den pertsona edo entitateak konpromiso hauek hartu beharko ditu:

- a_ Hautaketa-batzordearen erabakia onartzekoa.
- b_ Proiektua deialdian zehazten den epean eta aurreikusten diren baldintzetan gauzatzekoa.
- c_ Gehienez hamar eguneko epean, onartzen duela idatziz berrestekoa. Hala berretsi ondoren, Montehermoso kulturunea harremanetan jarriko da hautatuetako bakoitzarekin, kontratua sinatu eta hori gauzatzeko berariazko klausulak finkatze aldera.
- d_ Aurkeztutako projektuan aldaketarik bada horren berri idatziz ematekoa.
- e_ Aurkeztutako proiektuaren jabetza intelektualaren eskubideen titularra izatekoa.
- f_ Utzitako leku eta azpiegiturak erabiltzeari dagokionez Montehermoso kulturuneko arduradunek ematen dizkioten arauak betetzekoa.
- g_ Proiektua aurreikusitako epean eta baldintzetan gauzatzekoa — bestela, uko egin beharko diote laguntzari, eta, diru-kopururen bat jaso badute, itzuli—.
- h_ Obra, ez osorik ez zatika, jendaurrean ez erakustekoa, harik eta Montehermoso kulturuneak emandako jarraibideei jarraiki erakusten den arte.
- i_ Proiektuaren komunikazio egokirako beharrezko egokitzen diren informazioa eta dokumentazioa ematekoa, eta, behar izanez gero, proiektuaren baitan ekoizten diren irudiak jendaurrean erreproduzitu eta erakusteko eskubidea Gasteizko Udalari lagatzekoa.
- j_ Proiektuaren publizitatean —Montehermoso kulturunean nahiz beste inon egiten delarik ere— Gasteizko Udalaren eta Montehermoso kulturunearen logotipoak jartzekoa.
- k_ Programa bukatu ondoren, bi hilabeteko epean, egindako lanaren oroitidazkia aurkeztekoa —edukiak kontratuan zehaztuko dira—.

Hamaikagarrena: Dokumentazioa itzultzea

Erabakiaren berri jakinarazi ondoren, hautatu gabeko proiektuak itzuli egingo dira eskatzaileak hala eskatuz gero, 30 egun naturaleko epean itzuli ere. Denbora hori igarotzen delarik, gainerako proiektuak txikitu egingo dira.

Hamabigarrena: Oinarriak interpretatu eta onartzea

Oinarri hauen interpretazioan sortzen den zalantza oro Gasteizko Udaleko Kultura, Hezkuntza eta Kirol Sailak argituko du.

Deialdi honetan parte hartzeak oinarriak oso-osorik onartzen direla esan nahiko du. Oinarri hauetakoren bat edo laguntzak emateko baldintzetakoren bat ez betetzea nahikoa arrazoi izango da horiek bertan behera geratzeko, galda litezkeen bestelako erantzukizunak gorabehera.

Argibide gehiago:

Montehermoso kulturunea

Frai Zacarias Martinez kalea, 2

01001 Vitoria-Gasteiz

+34 945 161 830

administracion@montehermoso.net

www.montehermoso.net

I. ERANSKINA: PROIEKTU ARTISTIKOAK HAUTATZEKO DEIALDIA, 2019. URTEA

Izen-deiturak:
Nortasun-agiria:..... Helbidea:
.....
Telefonoa:..... Posta elektronikoa:
Kargua (behar izanez gero):
Helbidea:
Telefonoa: Faxa:
e-posta:

ADIERAZTEN DU: Gasteizko Udaleko Montehermoso kulturuneak hiru proiektu artistiko hautatzeko egindako deialdiaren berri izan duela, eta bertan ageri diren oinarriak irakurri. Eta, horrenbestez, hauxe

ESKATZEN DU:

Proiektu honetarako eskabidea onar dakiola:
Horren kostua, guztira, eurokoa da —galdatutako agiriak eransten dira, eta benetakoak direla egiaztatzen—.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko.....

(Eskatzailearen izenpea)

Erantsitako agiriak

- 1.-
- 2.-
- 3.-
- 4.-
- 5.-

Ematen ari zaren datu pertsonalak "Artistak" fitxategian sartuko direla jakinarazten dizu Gasteizko Udalak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, betetze aldera. Fitxategi horren titularra Udala bera da, eta Montehermoso kulturunearen eta artisten arteko harremanak kudeatzea du helburu. Norberaren datuak ikusi, aldatu, ezeztatu edo kontra agertzeko eskubideak baliatu nahi izanez gero, Montehermoso kulturuneko Informazio Zerbitzura jo beharko duzu —Frai Zacarias Martinez, 2; 01001 Vitoria-Gasteiz—, edo herritarrei laguntzeko bulegoetakoren batera.